

LEGAZPIAko TELLERiarTEko IPUINAK CUENTOS DE TELLERiarTE EN LEGAZPIA

J. M^a ETXEBARRIA

ETNIKER-BIZKAIA

Dpto. Etnografía Instituto Labayru

Informante: Martín Ugarte, nacido en el caserío Saletxe y que ha vivido siempre allí

Encuestador: José M^a ETXEBARRIA

Martín Ugarte a instancias del encuestador, fue escribiendo en los ratos libres estos cuentos que recordaba de su niñez.

Los escribe en la grafía normativa del guipuzcoano con todos los fonemas de este dialecto, que conservan bien los hablantes adultos de ese pueblo, y que puede usar un informante alfabetizado. En el habla normal se dan algunas contracciones más.

He respetado totalmente su grafía porque conozco el euskera de este pueblo en diversas conversaciones que he mantenido con Martín y con otras personas, y responde a la pronunciación que tienen.

La fecha de recogida de datos se realizó en los años 1986 y 1987.

Después de cada cuento va la traducción al castellano. La serie de cuentos es la siguiente:

1. Zapatariaren ipuin bi. Dos cuentos de zapateros
2. Peru eta Mariren ipuinak. Cuentos de Peru y Mari
3. Otsoko ta Axariarena. El cuento del lobo y del zorro
4. Bi gertaera. Dos anécdotas de la vida real.

1. ZAPATARIAREN IPUIN BI

1.1

Erri txiki batean bai omen zan gizon bat, langintzaz zapataria zana, baiña lanari segitzeko baino atera zijoakion edozeinekin berriketan egoteko arreta geiago artzen omen zuan.

Egun batean, etxean sua pizteko txotx bat ez-eta, bere emazteak basora egur billa bialdu omen zuan bere amar seme-alaba koskorrekin, lepaka bana egur ekarri zezatela aginduaz.

Bere bizitza guzian aizkorarik eskuan artugabeko gizonak, aurrena ikusi zuan aritz tantai adartsuari lurra jo eraziko ziola-ta, zapata-eztenaz ondoan-zaz-taka asi omen zan.

Izpika-izpika epaia janaz zeramala, pixuaren zabuaz arbola eretxi zezakeala burutamena arturik, seme zarrenari gaiñeko kukullura igo, ta zintzilik jarri zedilla agindu omen zion. Gero bigarrenari, lenengoaren anketatik zintzulik jarri zedilla. Irugarrenari onen anketatik besteari onen anketatik...eta onela amar seme-alabak lurrerañoko kataia egin omen zuten.

Zapataria bere eztenaz zazta lizatza lizatza! ari zala, danen pixuari eusten zegoen guenekoari eskuak irrist egiten asi zitzaionean, esku-zabalak txiztuaz ezatzea bururatu omen zitzaion, (onelakoetan, edo atxur-kirten, da aizkol-kirtenak labaitzean eskuei txistua emateko oitura ezaguna da) eta bere senidei oiug omen zion:

—Itxoin apur batean, eskui txistu eman arte...!-Eta

eskuak ezpainetara zeramatzala- Jesus batean egundoko zaparradan azpian zegoan sasartera bata-bestearen gaiñera. Arrigarria, sasia erbia omen zegoan, eta zapataria burua jiratzean, zanezkoren bat tximistak arturik joan zala ikusi omen suen.

—Ene-ba... Au dek atarramentua! Nor falta zera-te? Falta danak beatza jaso dezala! Baiña seme-alabak ixilik. Bazekian eskuko beatzak aiña zirala, eta bana-banaka kontatzen asi omen zan:

—Bat, bi, iru, lau, bost...Beste bostekin amar...(Beste eskuko bost beatzak). Joan dana nor uan-ba.?

Bi-iru bider kontatu omen zituan beatzekin, etan dan-danetan amar. Gero atzekoz-aurrera kontatzen asi omen zan:

Amar, bederatzi, zortzi, zazpi, sei...Beste bostekin...sei ta bost...amaika...

Bi-iru bider kontatu, eta danetan amaika.

—Etxekoa ez danak beatza jaso dezala!

Baiña iñork ez omen zion beatzik jasotzen; eta aritza zegoanetan utzirik etxera joan omen zan seme-alabak ondoren zituela, ta emazteari gertatu zitzaionaren berri eman.

Emaztea laister konturatu omen zan etxeko gu-ziak an zeudela, ta ala esan omen zion:

—Zer joan, da joanondoko! Amarrak oso-osorik emen zeudek...

—Ba, nik, anima-gorritxo bat tximistak arturik joan dala ikusi diñat.

—Emen falta zaiguna su-egurra dek, egurra, ta ez beste ezer!

Eta emazteak atariko ate-ostean zuten erratza artu, ta bizkarrean eman zion zartatekoaz bi zati egin omen zuan esanaz:

—Ua atzera, eta su-egurra ekartzen ez dekan arte ez aiz etxean sartuko. -Eta atea barrutik itxi omen zion senarra kanpoan utzirik.

Ordurako illuna izaki, ta an, aruzko basarrian karobia erretzeko zeukaten ota-pilla illartargira ikusi omen zuan, eta bertatik sorta egin-da, illargibetearen argitan etxeratu omen zan.

Lenengoan baiña furi gaiztoagoaz emazteak:

—Zer dakarrek doontsu orrek...?

—Sua pizteko ote-igarra, bizkarra arantzaz josi zidan baiña..

Biar ekarriko diñat-ba, naikoa egur...

—Ua, begien aurretik eure ota-sorta ta guzi...Era-man zak artutako tokira, edo bestela zelatan dauka-gun illargi ao-zabal orren eztarriko zuloan sartu zak!

Bat-bateko aize-zurrunbilloa sortu omen zan, eta zapataria aizeak gora irentsi zuanezkoari begira zegoala, emazteak abian somatu omen zuen illargi talo-zabalera senarra iritxi zanezkoa. Geroztik, an ikusten omen zuan bere gizontxo illargi-betea zan egunetan sorta ota bizkarrean zuela.

(Ilbete dagoenean begiz ikusten zaion beleungu-neengatik, sorta- ota bizkarrean duela, norbait da-goala esan oi da.)

1.2

Astean-bein, etxez-etxe ibiltzen omen zan zapataria.

Lepa-saskian konpondutako oiñetakoak artu, eta aiek etxeetara zabalduaz batera, konpondu bearrekoak biltzen omen zituan.

Bein, ontan ibilli-ta, illundu-ta gero etxera zijoala Zubitxota'ko zabalgunera inguratu zanerako sorgiñak gau-festan omen zebiltzan.

Zer "festa-puntzio" egiten zuten ikusteko tirriaz, errekarroan izkutatu omen zan zapataria. Ordurako sorgiñak su erratura piztua omen zuten eta garraren inguruan bata besteari eskutik elduta ariñeketan jira-biraka asi omen ziran.

Geroxeago sorgiñetan zaarrena auspezturik ipurdia zabalik jarri omen zuten, eta osterongo danak, bana-banaka, "astelen, astearte, asteazken, iru!" indartsu esan ondoren sorgin zaarri ipur- masaillean mun ematen omen zioten. Ontan, jiraaldi bakoitzean; "astelen, astearte, asteazken; iru!" eta mun eman.

Alako batean, begira egoten aspertuta, errekarro-rotik zapataria ere indartsu: "ostegun, ostiral, zapatu; sei! ta biramona jai! "baina mun ematearen imintzioa egiñaz, ipur-masaillan zapata- eztena zasta, zasta! sartzan omen zion sorgin zaarri.

Onek: -Zapataria arraio ori, okotzeko bizarrak zorroztak dauzkek! -esaten omen zion jira-bira bakoitzean.

Ontan jarraitu omen zuten danak egunsentia nabarmendu zaneraifo, ta orduan sorgiñak alde banatara izkutatu omen ziran eta zapataria ere bai bere etxera konpondu bearreko oiñetakoak lepa- saskian zituela.

Biamonean, saskian zituen zapatak konpontze-

ko asmotan lanari ekiterakoan, oiñetako danak zoruberrituak zeudela konturatu omen zan, eta berak ezagutzen narrukiaz gaiñera (ain zuzen).

Zapataria pozik gelditu omen zan, eta zeudenetan urrengo astean artu zituan etxeetara eraman ere. Baina ondorengo egunetan, bata eta bestea asarre etorri omen zitzaion zapatariari etxera:

—Zer narru, edo ser deabrukeri sartu izkien nere oiñetakoei?

—Zer-ba...?

—Zer-ba, esaten dek... Lokatzatan sartu ordukoxe, urtu, ta anka- gorritan geldittu nauk!

DOS CUENTOS DE ZAPATEROS

1.1

Erase una vez en un pueblo pequeño un hombre, de oficio zapatero, que prestaba más atención a charlar con cualquiera que le viniera a la puerta que a dedicarse a su trabajo.

Una vez, sucedió que no tenían leña para encender el fuego; entonces su mujer mandó a su marido con sus 10 vástagos al bosque a por madera, con la orden de que trajeran un leño por cabeza.

En primer lugar miró al tronco ramoso del roble con la pretensión de derribarlo, un hombre que en toda su vida no había tenido en sus manos un hacha, y comenzó a golpearlo con la lezna utilizada para los zapatos.

Poco a poco el corte lo iba comiendo; se aperció de que con el bamboleo podía derribar el árbol; por ello ordenó a su hijo mayor que se subiera a la copa del árbol y que permaneciera allí colgado. Luego al segundo, que se colgara de las piernas del mayor. Al tercero, de las piernas del segundo, y al otro de las del tercero, al siguiente de las del anterior... y así los 10 hijos formaron una cadena hasta el suelo.

El zapatero seguía con su lezna con los golpes, cuando al primero que sostenía el peso de todos empezaron a resbalársele las manos. Entonces se le ocurrió escupirse en las palmas de las manos (en estos casos es conocida la costumbre de escupirse en las manos cuando se resbala el mango del hacha o de la azada), y les gritó a sus hermanos:

—Esperad un momento, hasta escupir en las manos... y llevándose las manos a los labios, en un abrir de ojos se precipitaron uno encima del otro a unas zarzas que había debajo.

Increíble! Entre las zarzas había una liebre, y al

volver el zapatero la cabeza, vió que se escapó como un rayo; parecía un ser vivo.

—*Dios mío! y que estruendo! Quién de vosotros falta? Que levante el dedo el que falte!*

Pero los hijos callaron. Sabía que eran tantos como los dedos de las manos, y comenzó a contarlos uno a uno:

—*Uno, dos, tres, cuatro, cinco... Con otros cinco diez. (Los cinco dedos de la otra mano)... Entonces, quién era el que se ha ido?*

—*Los contó un par de veces con los dedos, y en todos resultaban ser diez. Luego empezó a contarlos en orden contrario:*

—*Diez, nueve, ocho, siete, seis... Con los otros cinco... Seis y cinco, once.*

Volvió a contar de ese modo, un par de veces, y siempre once.

—*El que no sea de casa, que levante el brazo!*

Pero nadie levantaba el dedo; y dejando el roble tal cual estaba se fueron a casa con toda la prole por detrás, y dió cuenta a su mujer de lo sucedido. La esposa se dió cuenta enseguida que todos los hijos estaban allí, y así le contestó:

—*Qué escaparse ni ocho cuartos! Están aquí los diez enteritos.*

—*Pues, yo... yo he visto a uno que se escapaba como un rayo.*

—*Aquí lo único que falta es la leña para el fuego, madera, y no otra cosa!*

Y la mujer cogió la escoba que estaba detrás de la puerta del portal y con el golpe que le dió en la espalda lo partió en dos diciendo:

—*Vete para atrás, y hasta que no traigas la leña para el fuego no entrarás en casa y le debió de cerrar la puerta por dentro dejando el marido fuera.*

Para entonces era noche, y allí, en el caserío de más allá tenían un montón de argoma para quemar el calero tal como lo vió a la luz de la luna. Y haciendo un manojo, del mismo a la luz de la luna llena debió de volver a casa.

Pero la mujer; más furiosa que la primera vez

—*¿Qué traes, tú bendito de tí?*

—*Argoma seca para encender fuego, aunque me ha llenado la espalda de espinas.*

Mañana traeré pues, suficiente madera...

—Vete, lejos de mi vista con tu fajo de argoma y todo... Llévalo al sitio de donde lo has cogido, o sino mételo en la garganta de esa gran boca de luna que tenemos en la celada!

Debió de surgir de repente un vendaval, y estando mirando hacia arriba al zapatero que había sido aspirado por el viento, la mujer debió de notar el hecho de que el marido habría llegado a la amplia torta de la luna. Desde entonces, allí debía de ver a su hombrecito, los días que había luna llena, llevando el fajo de argoma en la espalda.

(Cuando hay luna llena por las junturas de las rodillas que se le ve, llevando el fajo de argoma en la espalda, se ha solido decir que hay alguien).

1.2

Una vez a la semana, el zapatero debía de andar de casa en casa. Cogía los zapatos en el cesto a la espalda y repartiendo aquéllos en las casas, debía de recoger a la vez los que había que arreglar.

Una vez, después de andar en esto, yendo a casa una vez que había anochecido y para cuando se había acercado al claro de Zubitxota, las brujas debían de andar en fiesta nocturna.

Con el anhelo de ver qué "fiesta-función" hacían, el zapatero debió de esconderse en la pequeña cañada. Para entonces las brujas debían de tener encendido el campo de fuego y debieron de empezar a dar vueltas corriendo cogiéndose unas a otras de la mano alrededor de las llamas.

Un poco después, debieron de poner de entre las brujas la más vieja postrada con el culo abierto y todas las demás, de una en una después de decir fuertemente "astelen, astearte, asteazken, iru" debían de besarle a la vieja bruja en la nalga. En esto, en cada una de las vueltas "astelen, astearte, asteazken; iru" y besarle.

En una de éstas, aburrido de estar mirando, el zapatero gritó con fuerza desde la cañada: "jueves, viernes, sábado, seis! y al día siguiente fiesta"! Las brujas se juntaron y entonces el zapatero comenzó a correr, pero las brujas lo cogieron enseguida y lo llevaron a su grupo y poniéndose en la fila de ellas, lo pusieron a correr. Las brujas: "lunes, martes, miércoles, tres!" Y le besaban. El zapatero: "jueves, viernes, sábado, seis! Y al día siguiente, fiesta!" Pero fingiendo darle un beso, zasta, zasta!, le metía la lezna en la nalga a la bruja vieja. Esta comentaba en cada vuelta: "Maldito zapatero" Tienes las barbas del mentón muy afiladas

Y en esto debieron de seguir hasta que se notó el amanecer, y entonces las brujas debieron de esconderse cada una por su lado, y también el zapatero se fue a su casa, llevando los zapatos que había que arreglar en el cesto de la espalda.

Al día siguiente, al volver al trabajo con intención de arreglar los zapatos que tenía en el cesto, debió de darse cuenta que todos los zapatos estaban con las suelas arregladas y además con un cuero que el no conocía (por cierto).

El zapatero quedó contento y los llevó tal como estaban las semanas siguientes a las casas donde los había recogido. Pero a los días siguientes, de la entrega unos y otros vinieron enfadados a casa del zapatero.

—Qué cuero o qué diablos pusiste a mi calzado?

—Qué pues?

—Dices qué pues? Apenas nos metemos en barro se funde el calzado y me he quedado totalmente descalzo!

2 PERU TA MARI'ren IPUIAK

2.1

Peru ta Mari senar-emazteak basarritxo batean bizi omen ziran, eta bein, urterako koipegaia izan zezaten, Mari'k, perira joan-da txerrikume bat ekarri zezala esan omen zion Peru'ri.

Mari'k agindua bai egin era Peru'k, eta txerritxo bat erosi, ta etxerako irteeran ala esan omen zion txerritxoari:

—Tira, ik lau anka dauzkak, eta nik bi; ta ni baiña bixkorrago joan daikek eta segi bideari. Eta tipi-tapa, tipi-tapa, batere estutu gabe etxeraño joan zan.

—Txerria etorri al den? -Peruk emazteari-

—Nola etorri gero...?

—Arraioa! Esan zionat-ba, ni baiña bixkorrago etorri dezakela-ta bideari segitzeko...

—Lelotzarra alena! Ori egingo uan-ba? Soinkurutzetik soka lotuta, txakurtxo bezalaxe ekarri bear uan.

—Urrengoan, ala ekarriko diñat-ba.

Urrengo peri egunean topin bat ekartzeko agindu omen zion Mari'k. Bai Peruk Mari'ren esana egin ere. Topiña artu, ta aztatik soka loturik, ondoren tarraska zuala, etxera orduko mazpil-mazpil egin omen zitzion.

Mari'k ikusi zuanean ala esan omen zion:

—A, lelotzarra alena! Ori egingo uan-ba? Aztan makilla sartu, ta bizkarrean zintzilik ekarri bear uan.

—Urrengoan ala ekarriko diñat-ba.

Urrengo peri egunean, bae bat ekartzeko agindu omen zion Marik. Bai Peru'k, Mari'ren esana egin ere. Bae bat artu, sarean makilla sartu, ta bizkarrean zintzilik zuala joan omen zan etxera.

Baearen tarratada ikusi ordukoxe, Marik esan omen zion:

—Lelotzarra alena! Ori egingo uan-ba? Besapean estu-estu artuta ekarri bear uan.

—Urrengoan ala ekarriko diñat-ba.

Urrengo perikoan, ezta ekartzeko agindu omen zion Marik. Eta Peru'k katillu-eztia besapean estu-estu artu omen zuan, eta etxeratu zanerako, arropa ta beso-aztalak lardaskaz itxatsirik gelditu omen zitzaion.

Mari'k lardaskeri ura ikusi zuanean ala esan omen zion:

Lelotzar aundi orrek ori egingu uan-ba? Txapelean sartu, ta eskuan zintzilik ekarri bear uan, tarteka putzu-zuloetan buztiaz- bustiaz.

—Urrengoan, ala ekarriko diñat-ba.

—Urrengo peri egunean gatza ekartzeko agindu omen zion Mari'k.

Peru'k gatz-zorroa txapelean sartu, ta bidean putzu-zuloetan sartuaz zeramala, etxera orduko gatza urtu-ta, eskuan txapel utsarekin gelditu omen zan.

Mari, arras asarreturik zegoala nabaritu zuanean Peru'k ala esan omen zion:

—Urrengoan ez diñat-ba, ola ekarriko...

—Irekin etziok bizimodurik eta atzeik, eta urrengoan neu joango nauk perira, ta i, etxean geldituko aiz!

Urrengo perikoan Mari'k ala esan omen zion Peru'ri:

—Peru, ni perira noak, eta umeari kontu egin, suari begiratu, eta auntzak ere zaindu...

Mari'k barrutiko erromara pasatu zuanekoxe, sargardo edan bat egitea bururatu omen zitzaion Peru'ri, ta upelari ziria atera-ta zanga-zanga edanaz zegoela, auntzak baratzan zebiltzala-ta auzokoak deadarka asi omen zitzaizkion. Ixtillu artan upelaren

ziria topatu ezin, eta ondoan zeukan etxeko txakurtxoaren itsas- muturra ziri tokian sarturik auntzengana joan omen zan.

Baiña auntz deabruak baratzatik iñola ere atera ezin, eta txakurrari txistuka asi omen zan, ta txakurtxoak eta bien artean atera omen zituzten auntzak baratzatik.

Etxera itzuli zanerako upela usturik eta beebarrua igari-toki, ta ume koskorra putzuan plisti-plasta omen zebillen.

Umea, buruan azka ta azka zebillela somatu omen zuan, eta:

—Ume! Zorriak al dittun? Ba nik ilko diñat, (dizkiñat).

Eta gaztain-mazoaz kiski, kaska joaz, buru-egurra ausi omen zion.

Suari egurrak ematen asi omen zan, eta gelatzean zegon txerri- kaldara araki muturraz uste gabeen jo-ta, ipurdiz gora erori-ta, sua arras itzali omen zitzaion.

Mari zetorreanean egundoko jipoia artu bearke zuala-ta bildurraren-bildurrez, atariko atea barrendik itxi omen zuan.

Marik etxera joan zanean:

—Peru zabaldu atea!...

—Ez, ez diñat zabalduko...-Peru'k barrendik-

—Zer-ba? Okerren bat egin al dek ala?

—Bai, sua itzali zaidan.

—Ori ez dek ezer, zabaldu zak...

—Ez, ez diñat zabalduko...

—Zer-ba? Beste okerren bat ere egin al dek?

—Bai, auntzak baratzako aza danak jan dizkiñe.

—Ori ez dek ezer, berriak aldatuko dizkiagu, ta zabaldu zak atea.

—Ez, ez diñat zabalduko, jo egingo naun-eta.

Zer-ba? Beste okerren bat ere egin al dek ala?

—Bai, umeari zorriak iltzen asi-ta, bera il diñat.

—Ori es dek ezer, beste bat ekarriko diagu, ta kito. Zabaldu zak atea es aut joko-ta...

Erreguaren-erreguz alako batean atea iriki omen zion Peru'k, eta Mari'k burubide ura ikusi zuanean,

akullua eskuan artu zuanekoxe, Peru'k kanpora anka egin omen zion, eta Mari'k orduan atea barrendik itxi.

Peru gixaxoa, ordurako illuna gaiñean-da, gaue-rako legorpea nun topatuko omen zijoan, eta askako lexiba-maia ikusi zuanean, aren azpian lo egingo zuala bururaturik, maia bizkarrean zuala alderandu omen zan etxeaz beste espaldara zegoen manda-bideraiño. Antxe, pago-arbola baten burura maia jasorik, euria egin-da ere legorpea ba'zuala-ta, maipean kukuildu omen zan, illunabarrean oilloak bezela.

Bereala ijitoak etorri omen ziran, pagopera aiek ere, ta gaua an pasatzeko, ta sua egin eta aparía prestatzen asi omen ziran.

Bildurraren-bildurrez, ta kearen ats miña eraman eziñez zegoen ordu artan Peru pixe-larriak artu omen zuan, eta... ostoartean beera ¡zaaarra!... ijito-amonak surtan zeukan zartagiaren gaiñera...

—Zerutik jetxi dan olio-santua!...-esan omen zuan amonak-

Ondoren kaka-larria, eta...plasta, plasta, bete-bete-zartagira...

—Zerutik jetxi dan ezti santua!... -Amonak berri-ro-

Ijitoak afaltzen asi ziranekoxe, ustegabe, lexiba-maia amilka adar tarteak beera, ta atera zuan zipirri-zaparras, goia beera zetorrela-ta ijitoak igesi alderandu omen ziran.

Orduan Peru pago gaiñetik jetxi omen zan, eta su-argitan ikusi omen zuan ijitoak besasaski bat an utzi zutela, ta bizkarrean arturik etxera korrika joan omen zan.

—Mari! Zabaldu zan atea...

—Ez, ez diat zabalduko.

—Zer-ba? Okerren bat egin den ala?

—Bai, i etxetik kanpora bialdu aut, eta jo egingo nauk.

—Ori ez den ezer, ez aut joko, zabaldu zan atea...

Alako batean atea iriki omen zion Mari'k, eta Peru'k ijitoei artu zien besa-saskia eskura eman omen zion Mari'ri.

—Zer dakarrek saski ontan? -Mari'k- Astuna zeok...

—Etzakiñat-ba, zer dagon ere...

Argitara eraman-da begiak urraka saskia araka-

tzen asi omen ziran biak, eta zapietan bildurik ijitoen aurtxo, begi beltz- beltzekin, eta aurraren buru pean zillar-diruz leporaiño betetako larru-zorroa omen zeuden.

—Baiña... nork edo...nun edo...nola...ordea? -Mari asi omen zan galdenaiaz-

—Zerutik jetxi dan aingeru santua, bere dote-ta guzi...

—Bat-batean Peru'ri irten omen zion-

Eta andik aurrera, ume-orde, ta diru; zoriuntsu bizi izan omen ziran.

PERU Y MARIA

Se cuenta que el matrimonio de Peru y Maria vivían en un pequeño caserío y una vez, María, para que pudieran tener grasa para todo el año le dijo a Peru que fuera a la feria y trajera un cochinito.

Y efectivamente, Peru hizo lo mandado por Mari y compró un cerdito. Ya al volver para casa le dijo al cerdito:

—Mira, tú tienes cuatro patas y yo dos; y puedes caminar más rápido que yo y tú sigue el camino. Y tipi-tapa, tipi-tapa, Peru volvió hasta casa sin preocuparse de nada.

—Ya ha venido el cerdo? Preguntó Peru a la mujer.

—Cómo va a venir!

—Rayos! Pues yo ya le he dicho que puede venir más rápido que yo y que siga el camino...

—Tonto estúpido! Cómo has podido hacer eso? Debías haberlo traído como un perrito, atándole con una cuerda por la cruz entre cuello y espalda.

—Bueno pues a la siguiente lo traeré así.

Al siguiente día de feria Mari le mandó que trajera una olla. Y efectivamente Peru cumplió el mandato de Mari. Cogió la olla y le ató la cuerda por el mango y trayéndola a rastras, antes de llegar a casa se le abolló totalmente.

—Ah, tonto estúpido! Cómo se te ha ocurrido hacer eso? Debías haberlo traído colgando de la espalda, metiéndole un palo por el asa.

—Bueno pues a la siguiente lo traeré así.

Al siguiente día de feria, Mari le mandó que trajera un cedazo. Y efectivamente. Peru hizo el encargo de Mari. Cogió un cedazo, le metió un palo por la red, y llevándolo colgado de la espalda se fué a casa. Apenas vió la raja, dice que Mari le dijo:

—Ah tonto estúpido! Cómo se te ha ocurrido hacer eso? Debías haberlo traído debajo del brazo, apretándolo bien.

—Al siguiente día de feria, Mari le mando que trajera miel. Y dicen que Peru cogió un tazón de miel y lo apretó debajo del sobaco, y para cuando llegó a casa, le quedaron pegadas la parte superior del brazo y la ropa con el unte.

Mari, cuando vió aquella untada dicen que le dijo:

Ah tonto estúpido! Cómo se te ha ocurrido hacer eso? Debías haberlo metido en la boina y traerlo colgando de la mano, mojándolo de vez en cuando en los charcos.

—La siguiente vez lo traeré así.

—El siguiente día de feria Mari le mandó que trajera sal. Peru metió el saquito de sal en la boina, y mientras lo traía para casa lo iba metiendo en los charcos, de modo que antes de llegar a casa se quedó con la boina vacía en la mano.

Apenas Peru se dió cuenta de que Mari estaba muy enfadada, se dice que le dijo: La próxima vez no traeré el encargo así.

—Contigo no hay forma de sacar la vida adelante y la próxima vez iré yo a la feria pues. Mari le dijo así a Peru:

—Peru, yo voy a la feria y cuida al niño, vigila el fuego y cuida las cabras.

Apenas Mari atravesó la valla del terreno acotado, a Peru se le ocurrió echar un trago de sidra. Y apenas había sacado la clavija a la cuba y estaba bebiendo, los vecinos le comenzaron a chillar, porque las cabras habían penetrado en su huerta. En aquel lio no pudo encontrar la clavija y metiendo la cola del perrito que estaba al lado, fue a recoger las cabras.

Pero no conseguía sacar a la maldita cabra de ninguna de las maneras y comenzó a silbar al perrito, y entre los dos consiguieron sacar la cabra.

Cuando llegó a casa la cuba estaba vacía y el interior parecía una piscina y el crío pequeño chapoteaba en el líquido, plisti- plasta.

Se dió cuenta de que el crío se estaba rascando la cabeza y:

—Oye crío, tienes piojos? Pues ya te los mataré yo.

Y con el mazo de las castañas, pegándole kiski! kaska! le rompió la cabeza.

Comenzó a echar leña al fuego y pegó con la punta de una rama el caldero para los cerdos que

había al fondo, lo volcó y se le apagó completamente el fuego.

Creyendo que cuando llegara Mari iba a recibir una gran paliza, cerró la puerta de entrada por dentro.

Cuando Mari vino a casa: -Peru abre la puerta!

—No, no voy a abrir, respondía Peru desde dentro.

—Qué pues? Ya has hecho algún estropicio o qué?

—Sí, se me ha apagado el fuego.

—Eso no es nada, abre...

—No, no voy a abrir.

—Qué pues, ya has hecho algún otro estropicio no?

—Sí, las cabras se han comido todas las berzas de la huerta.

—Eso no es nada. Plantaremos nuevas y abre la puerta.

—No, no te voy a abrir, porque me vas a comer.

—Qué pues? Es que has hecho algún otro estropicio más?

—Sí, he comenzado a matar los piojos al crío, y lo he matado.

—Eso no es nada, traeremos otro y ya está. Abreme la puerta, porque no te voy a pegar.

A fuerza de rogar, por fin Peru le abrió la puerta, y cuando Mari vió aquel espectáculo, y apenas había cogido un aguijón en la mano, Peru se escapó fuera y entonces Mari cerró la puerta por dentro.

El pobre Peru, habiendo ya anochecido, iba buscando dónde cobijarse, y cuando vió una mesa de colada, pensó que podría dormir debajo de ella. La cargó al hombro y se alejó a un camino de mulos que había en la espalda del monte enfrente de su casa. Allí después de subir la mesa encima de un haya se acurrucó debajo como las gallinas al atardecer creyendo que aunque lloviera, ya tenía protección.

De repente llegaron unos gitanos, ellos también debajo del haya, y comenzaron a encender fuego y a preparar la cena con la intención de pasar allí la noche.

Con un gran susto encima y estando Peru sin poder soportar la molestia del humo, le entraron

ganas de orinar. E hizo su necesidad entre las hojas justo encima de la sartén que tenía la gitana abuela.

—*Aceite santo que ha bajado del cielo- dijo la abuela.*

Después le vinieron ganas de hacer de cuerpo y plasta!" plasta! hizo a la sartén.

—*Miel santa que ha bajado del cielo- dijo la abuela de nuevo.*

Apenas comenzaron a cenar los gitanos, inopinadamente se cayó por entre las ramas, la mesa de la colada y con la barahunda que sacó, los gitanos huyeron despavoridos, creyendo que se les venía el cielo encima. Entonces Peru bajó del haya y vió a la luz del fuego, que los gitanos habían dejado allí una cesta de las que se llevan en el brazo y la puso en su espalda y fue corriendo a casa.

—*Mari abre la puerta!*

—*No, no te voy a abrir.*

—*Qué pues? Es que has hecho algún estropicio o qué?*

—*Sí, te he despachado fuera de casa y me vas a pegar.*

—*Eso no es nada, no te voy a pegar, abre la puerta.*

Por fin Mari le abrió la puerta y Peru le entregó en la mano la cesta que había cogido a los gitanos.

—*Qué traes en esta cesta? -Mari. Es pesada...*

—*No sé ni siquiera lo que hay. La llevaron a la luz y acercando los ojos comenzaron a examinarla entre los dos y apareció entre pañales un niño de los gitanos, con unos ojos muy negros y delante de la cabeza del niño había un saco de cuero lleno de monedas de plata.*

—*Pero quién ... o dónde... o cómo pues? -Mari quiso comenzar a preguntar.*

—*Es el santo ángel que ha bajado del cielo, con la dote incluida. Y desde entonces con el niño adoptado y el dinero vivieron felices.*

2.2

Illunabar batean Peru eta Mari estu omen ziran, biak goseak iregita, eta afaritarako ao-bete jaki ez.

Egoera artan Peru'k Mari'ri esaten omen zion;

—Lotara goazenean, oetak eutsiko zigun-da.

—Eta biar? Gauak eguna ekarriko dik, eta jatekoaren izpirik etxean ez diagu -Mari'k erantzun omen zion-

—Biar ere eguna argittuko din, eta orain beñepein lotaratu gaitzenen.

—Badakik zer pentsatzen nagon?

—Zer-ba?

—Zurtzeta-garakoan talo-iriña emango ote liguken...eta Zurtzeta- azpikotik talapala ekarri-ta, talo jan bat egingo ba'genu...

Gu mutillak orduan!

—Ba'dakin Mari balego'ko errotak ez duela iriñik ematen...

—Aizak Peru. Zurtzeta aitatzeak beste burutamen bat sortarazten zidak.

—Ze burutamen gero?

—Egunsentiko txerri-kurruxkak garakoan zirala-koan natxiok...

—Eta zer geiago?

—Ba... txerria ilko zutela...

—Eta...!

—Iriñaren aitzakian joango ba'giñake, odolkiren bat edo beste emango ligukela onanean...

—Ez den burutaldi makala izan! Baiño nor joan ordu ontan ate joka?

—Biok joango gaituk, biok.

—Irin lauso baten ondoren bi laguntzar? Ez irin ez odolki utziko giñuzkene.

—Ua orduan bakarrik.

—Talo bi egiteko iriñaren billa etxeko prakaduna? Egokiago den eu joatea.

—Zer esango luketen ere... etxean prakaduna-ta... emakume soilla ordu ontan etxetik irtetzea...

Azkenenan biek joatea erabaki omen zuten, Peru etxaostean gelditu ta Mari'k aurreko atea jo; eta aurpegi ematekotan.

Erabaki bezala Peru osteko ate ondoan utzirik, Mari aurrekora gerturatu zanean, sukaldeko leiatilla txirriturik zelatan jarri omen zan barruan zer ikusiko. Eta, begiak kaskarrera laiñeza eman-da, burutaldi berriak bultz eragin omen zion, eta, "jokua eskuan diñat" bere baitan esanaz Peru'gana joan omen zan.

—Peru, ua ikuillura, ta kateetako bei ta txal danak askatu itzak, eta etorri azkar lengo tokira, ta ni nato- rren arte geldí egon ementxe.

Peru joan omen zen ukuillura, ta bai Mari'k agin- dua egin ere.

Jesus batean, ukulluko bei ta txekorrak makako- rraiz eta bata besteari aderka asi omen ziran, eta sukaldean zeudenak gauza onik etzala aien uku- lluan-da itxumustuan ukullura joan omen ziran.

Orduan Mari sukaldera sartu, ta gelatzean kobre- kaldaran egosten zeuden odolki-korda bi esku bana- tan arturik korrika Perugana joan omen zan, eta Mari aurretik eta Peru ondoren, etxera bitartean ez omen ziran gelditu

—Iriña ekarriko unan ezta? -Peruk Mariri galdera. -Eta orain talapala zer...?

—Zer irin, da zer talapala gero. Gaurko, ta aste guzirako aina auek badizkiagu-ta, Zurtzetako etxe- koandreak talo-iriña gorde dezala irinkutxan.

—Baño, baño...

—Zer baño ta zer ñaiño gero! Ñaiño baago go- seak ilko aiz! Ai Peru,Peru...! Ik, ez, nik dizkiat, etxe ontan prakak!!!

2.2

Un anochecer Peru y Mari estaban preocupados, porque estaban muertos de hambre y no tenían ni un bocado para cenar.

En esta situación Peru le dijo a Mari:

—Vamos a dormir porque ya nos sostendrá la cama.

—Y mañana? La noche traerá el día y no tenemos ni pizca de comida en casa- le respondió Mari.

—Mañana también amanecerá, y ahora por lo menos vamos a dormir.

—Sabes lo que estoy pensando?

—Pues qué?

—A ver si nos darían harina para hacer talos en próspero Zurtzeta. Y trayendo la pala para talos de Zurtzeta-bajo, podríamos hacer una comilona de talo. Entonces sí que estaríamos fenomenalmente bien.

—Ya sabes Mari que el molino de ¿si hubiera! no da harina.

—Oye Peru, el nombrar Zurtzeta me ha evocado otra idea.

—Qué idea?

—Creo que los trozos de cerdo del amanecer estaban colgadas en los ganchos.

—Y qué más?-

—Pues que habrán matado el cerdo.

—Y?

—Si fuéramos con la excusa de la harina, en el mejor de los casos nos darían alguna que otra mor- cilla.

—No es mala idea. Pero quién va a ir a estas horas llamando a la puerta?

—Iremos los dos.

—Dos personas hechas y derechas buscando un poco de harina? Nos dejarían sin harina y sin morci- llas

—Vete tú solo.

—Para buscar harina para dos talos el hombre de la casa? Es mejor que vayas tú.

—Imaginate lo que comentarían...El hombre en casa y la mujer que sale completamente sola de casa a esas horas.

Por fin decidieron ir los dos. Peru se quedó en la parte trasera de la casa y Mari llamó a la puerta y dió la cara. Tal como habían decidido quedándose Peru junto a la puerta trasera, cuando Mari se acercó a la parte delantera, corriendo un poquito la ventanilla de la cocina, se puso a observar por la rendija, a ver qué veía dentro.

Y provocándole la vista una osadía grande en la cabeza, se le ocurrió una cosa nueva y diciéndose a sí misma "ya tengo el juego en la mano", fue a donde estaba Peru.

—Peru vete a la cuadra y suelta todas las vacas y terneros que estén atados con cadenas y vuelve pronto al sitio de antes y estate quieto aquí hasta que vuelva yo.

Peru se fue a la cuadra y cumplió lo que le mandó Mari. En un instante las vacas y terneros de la cuadra comenzaron a mugir y darse cornadas unos a otros y los que estaban en la cocina, dándose cuenta de que algo malo ocurría en la cuadra, fueron allí atropelladamente.

Entonces Mari entró en la cocina y cogiendo en cada mano dos cordadas de morcillas que se esta- ban cociendo en la caldera de cobre, fue corriendo

a donde estaba Peru. Y Mari por delante y Peru siguiéndole, no pararon hasta llegar a casa.

—*Habrás traído harina no?— le preguntó Peru a Mari. Y ahora dónde está la pala para hacer talos?*

—*Qué harina y qué pala de talos! Ya tenemos con esto para hoy y para toda la semana. Que el ama de casa de Zurtzeta guarde la harina en la artesa.*

—*Pero, pero...*

—*Qué pero y qué enano. Si estás enano te morirás de hambre. Ay Peru, Peru yo soy la que tengo los pantalones en esta casa, no tú.*

3. OTSOKO TA AXERIARENA

Bein batean, otsoko ta axeria gau osoa eiz-lapurrean pasatu-ta gero, egunaren zabaleran leize-zulora zijoazela bidean trikitx topo egin omen zuten itzalera zijoan bare batekin. Axeriak arrokeriz ala esan omen zion bareari:

—Berandu abil baretsoa, eguzkiak bidean txigortuko au joera bizkortzen ez badek...

—Zuek zabiltzate berandu, zuek, onezkero leizean gorde-ta egon bear zenduten.

—Guk anak ariñak dizkiagu, ta ik arra-bete egin ordurako gu zuloan gaitxik.

—Aixa esan dek! Nik, naiz-eta ankarik euki ez, bazekiat gero txirristaka ibiltzen ere.

—Ori dek erronka jotzea. (Otsokok bareari) Gaitarako alago, gaitarako...

—Jokatuko nizukete biotako edozeini, zeinek lenengo Txantxon- erreka'ko zubia zapaldu.

Axeriak itxu-itxuan ondu omen zuan barearen erronka, ta otsokori esan omen zion zubiaren erdian arri bat jartzeko, ta lenengo zapaltzen zuanaren testigutza egin zezala.

—Bai, ta arria bere tokian jartzen detanean bi zaunk-ots egingo dizuet, lenengoa erne egon zaitezten, eta bigarrena irteteko.

Axeria arro-arro, pikotxean jarri omen zan bere isats luzea kakotuz aurreko anketaraiño muturreko ille-mototsa iristen zitzaioela, ta barea ere lau adarrak tente zituela luze-luze jarri omen zan, eta otsokoren zaunkotsa noiz entzungo zeuden bitartean, axeriari konturatzeke barea isatsaren mototsean itxatsirik mordo- mordo egin omen zitzaion. Otsokok bigarren zaunka joaz batera irten, eta lau saltotan axeria zubian omen zegoan. Baiña, bareak txirristarako zer maiña ote zuan ikusi miñaz, mugatzeko arriari jara-

monik egin gabe zubi-muturrean pikotxean gelditu omen zan, isatsaren muturra arriaren ondoraiño luzatzen zuelarik.

Artan axeria txirristaria noiz ikusiko zegoan bitartean, bareak ijara apur bat luzatzea aski izan omen zuan mugatzeko arria zapaltzeko.

Axeriak luze iritzirik otsokori ala omen zion:

—Ikusiko ote diagu gero, ikusi...bare narda-jario ori...?

Eta bareak arri gaiñetik ala erantzun omen zion:

—Bear dan tokiraiño etorri ari, ta ikusiko nauk ¡Arraiotan...! Anak ariñak dauzkak, baiña nere lardaren parekako gauza ez diranak.

Apostua galdu zuala-ta, bere izateaz lotsaturik leizera joan omen zan axeria, otsoko ondoren zuala.

EL CUENTO DEL LOBO Y EL ZORRO

Eranse una vez un lobo y un zorro que, después de pasar toda la noche cazando, cuando al amanecer se encaminaban a la cueva, se encontraron en el camino con un limaco que se dirigía hacia la sombra.

El zorro le dijo con orgullo al limaco:

—*Andas muy tarde, querido limaco; si no te apresuras, el sol te va a achicharrar.*

—*Vosotros sí que andais tarde! A estas horas ya tendríais que haber estado en la cueva.*

—*Pero nosotros tenemos las patas ligeras y podemos llegar a la cueva para cuando tú avances un sólo palmo.*

—*Con qué facilidad hablas! Yo, a pesar de no tener patas, puedo avanzar deslizándome.*

—*Vaya manera de fanfarronear! (respondió el lobo). Tienes ganas de bromear ¿eh?*

—*Ya os apostaría a los dos, quién llega antes al puente del río Txantxon.*

El zorro aceptó sin pensarlo más, la apuesta del limaco y le dijo al lobo que pusiera una piedra en mitad del puente y fuera testigo de quién pisaba primero la piedra.

—*De acuerdo. Y cuando ponga la piedra en su sitio, lanzaré dos aullidos: el primero para que estéis atentos y el segundo para daros la salida.*

El zorro, orgulloso, se situó en la cima, curvando su larga cola, de forma que la mata de pelo le llegaba hasta las patas; el limaco también se dispuso en su

sitio, con sus cuatro cuernos bien erguidos. Y mientras esperaban los aullidos del lobo, el limaco se enrolló en la cola del zorro sin que éste se diese cuenta. Al segundo aullido del lobo, el zorro partió y llegó al puente en pocos saltos. Pero al querer ver la habilidad del limaco para deslizarse, olvidándose totalmente de la piedra que indicaba la meta, se paró en lo alto del puente con la punta de la cola extendida hacia la piedra.

Y así, mientras el zorro esperaba que apareciera el limaco, a éste le bastó con extender un poco el cuerpo para alcanzar la piedra.

El zorro, pensando que la espera era muy larga, le dijo al lobo:

—¿Llegaremos a ver alguna vez, a ese baboso limaco?

Y el limaco, desde encima de la piedra, le contestó:

—Ven adonde tienes que llegar y ya me verás. ¡Demonios! Tienes los pies ligeros, pero no son capaces de llegar al nivel de mi baba.

Así, avergonzado de sí mismo por haber perdido la apuesta, el zorro volvió a su cueva, seguido del lobo.

4.1

"Gertaera ez da gauza izugarria, baiña susmo txarrak sarritan daukaten balioaren adierazpena poliki azaltzen du"

Bein Brinkola-zarreko Tomas bei bat sokatik zuala Urretxu'ko ferira joan omen zan, baiña arratsalde osoan salmentan eduki, ta erostunik egokitu etziztaionean, atzera etxeratzeko asmoa artu omen zuan, baiña bideari eldu aurretik aoa-bete artu bear zuala- ta tabernan sartu omen zan, eta batekin da bestekin au ta ori, irtetzerako illuna gaiñean. Bera aurretik, eta beia sokatik tipi- tapa bidean zetozela, Galdos baserriko soro barreanean esiz barrutik zeuden aza-buruei lepa-luzaka beia asi omen zitzaion. Bei gaixoak ere berak aiña premi ba'zeukala-ta, esia- ren gaindik saltu egin-da iru-lau aza kirtenik autsi, ta beiarri jateko eman omen zion, eta jan zituanean, artan egin omen zuten etxeraiñoakoa.

Biaramon goizean Galdos'ko Pedro-Mari sorora joan zanean, norbaitek aza-buruak eraman zituana konturatu omen zan, eta etxeratu zanean emazteari esan omen zion:

—Gure baratzatik aza-buruak norbaitek eraman digu.

—Aza-buruak eraman...?

—Bai, lepotik autsi, ta an daude lau kirten bertan utzi-ta.

—Etzan Tomas-Brinkola izango...(omen zion emazteak) gerturago egongo dira...Jokatuko nuke... Ordu ontan Matxaingo lapikoari tapa altxa-ta, gure azak topatu baietz... (Matxain Galdos'tik gertueneko da)

Urrengo perikoan Galdos'ko Pedro-Mari, beste iru-lau peri- gizonekin kontu-kontari zegoala, Tomas'ek ondora joan-da ala esan omen zion:

—Zurekin egon bearra ba'daukat-ba...Goazen ar- dangelara pitxartxo bat edanaz esan bearrekoak an esango dizkizut-eta.

Esan da egin, pitxar-ardoa aurrean zutela maian exeri omen ziran, eta ara Tomas'en aitormena.

—Ez dakit konturatuko ziñaten... Aurreko perikoz beito batekin arratsalde osoa plazan egon-da gero, beia goseak iregita neukan- da, etxerazkotan zure baratzatik iru-lau aza-buru artu,ta beiarri eman nion, eta, zer eman bear dizudan esaidazu.

—Arraioa, arraioa... Konturatu giñan bai, baiñan ez genduan zure juzgorik egin. Gertugoko xagua izango zalakotan gelditu giñan...

Edan zuten pitxartxoa Tomas'ek pagatu omen zuan, eta bere artan gelditu omen ziran, azak eta susmoak.

4.1

"Este suceso no es sorprendente, pero pone al descubierto el valor que tienen muchas veces las sospechas"

Una vez, Tomás, el del viejo Brincola se fue a la feria de Urretxu llevando una vaca de la cuerda, pero después de tenerla toda la tarde a la venta y al no convenir con ningún comprador, tomó la decisión de irse a casa; pero antes de emprender camino tenía que tomar una copa y se metió en la taberna, y hablando con uno y con otro, cuando iba a salir se había hecho de noche. Viniendo en el camino él por delante y la vaca de la cuerda, la vaca empezó a mirar alargando el cuello los repollos que estaban dentro de la valla en el campo del caserío Galdós. Como la pobrecita vaca también tenía tanta necesidad como él, saltó por encima de la valla y rompió 3 o 4 repollos del troncho, se las dió a la vaca para comer y cuando los comió, se fueron hasta casa.

A la mañana del día siguiente, cuando Pedro Mari de Galdós fue al campo, se dio cuenta de que alguien se había llevado los repollos y cuando fue a casa le dijo a la mujer:

—Alguien se ha llevado los repollos de nuestra huerta.

—¿Llevarse los repollos?

—Sí, romperlos del cuello y ahí mismo están los 4 tronchos.

—No habrá sido Tomás Bríncola (le dijo la mujer); estarán más cerca...

Apostaría que a esta hora si levantamos la tapa de la olla de Matxain encontraremos nuestras berzas (Matxain es el caserío más cercano de Galdós). Al siguiente día de feria estando Pedro Mari de Galdós hablando con otros 3 o 4 feriantes yendo Tomás a su lado le dijo así:

—Tengo que estar contigo, pues... Vamos a la taberna y así tomando una jarra te diré lo que tengo que decir.

Dicho y hecho, se sentaron en la mesa con una jarra de vino delante y he ahí la confesión de Tomás.

—No sé si os daríais cuenta... después de estar toda la tarde en la plaza con una vaquita, como tenía a la vaca de hambre, al ir a casa cogí 3 o 4 repollos de tu huerta y se los dí a la vaca. Dime lo que te tengo que pagar.

—Rayos, rayos... nos dimos cuenta sí, pero no te culpamos a tí, pensamos que sería un ratoncillo de más cerca.

Tomás pagó la jarrita que bebieron y así quedaron aclaradas las berzas y las sospechas.

4.2

“Bigarren au nere gaztearoan, Mateo Mujika Elizbarrutiko gotzaia zala gertatua omen da, ta nik eza-gutu nuan emakume baten jokabide bitxia”

lñorentzat gaitz aundirik ez ba'zuan ere, bai omen zan errian, urteetan aurrera zijoan emakume bat, aldian-bein eztarria bustitzea ezik beste griñarik etzuen ta etxeko iturria agortua inolaz ere, ta bazkaloste batean buruko zapi beltzean litro biko zatoa bildurik besapean estu-estu zeramala, garai artan kale- barrenean zegon ardandegira joan omen zan. Zato-koskorra leporaiño beterik, andik irtetzerakoan, elizako kanpai guziak dilin-dalanka, ta jendetza guzia kalean gora erdi-korrika ikusi zuenean, urduri jarri omen zan andrea, ta ardozaleari galde omen zion:

—Zer gertatzen-da Faustiño... Sua ez da-ba izan-go?

—Bai zera! Ez al zenekizun gaur Obispoa etortzeko dana?

—Ezer ez nekian. Bear ba'da, ots egingo zuan bikario jaunak baiña, itzak aopean naasten ditu, ta esandako erdia ez diogu jasotzen...

—Ba, aurki da onezkero, jendea ba'doa eliz-atarira ongi etorria ematera.

Berak ere besteak baiño gutxiago izaterik etzuan nai izan noski, baiña besapean zeramana izkutatu bearrez eliz-atarian danen begietan azaldu etzadin, iñor baiña len alboko atetik elizara satu omen zan.

Ordungotik bere pardeltxoak izkutatu ba'zuan ere, ondora zetorkienak usai artuko zietenaren bildurrez, korupean erdi- illunpean zegon Don Migel'en aitordegian sartu omenzuan, eta berak ondoko pillare-sapaldan exerlekua artu omen zuan. Gotzaia iritxi zanean ongi-etorria jasoaz batera, bera urretik zala danak elizara. Aurrena eliztarrei agurra, ta eliz-ospakizun laburraren ondoren, Gotzaiak parrokiari ikusi bat emateko oitura omen zuan da oi bezela asi omen zan baztarrak arakatzen. Aurrena aldare nagusia, gero alboetako lau aldareak, Gurutze-Santuaren da Errosarioko kapillak, bataio-arria, sakristia, korua, ta azkenik korupeko lau aitordegiak bana-banaka.

Erakusle zeraman Don Migel apaiza aitordegietako ateak irikiaz nork nun aitorkizunak entzuten zituzten adierazten omen zijoan:

—Emen Don Jose egon oi da; bigarren ontan Bikario jauna; irugarren ontan egon oi naiz ni... Gotzaia apur batean makurka egon- da, lau korapillon artean muturra tente zeukan pardeltxoak ikusi zuanean erakusleari irripartsu ala omen zion:

—Emen daukazun au zer? Datorkizunak konbidatzeko erabiltzen al dezu ala?

Apaiza erabat lotsaturik piparra baiña gorriago zala golpetik jarri omen zan gertakizunarekin, baiña bereala artu omen zuan nor izan zitekean susmoa ere.

Elizkizuna bukatzean, bere aitordegia begipean artzen zuan txoko batetik pardela nork jasotzen zuan ikusmiñez zeletan jarri omen zan. Elizatik danak irten zutenean, pillare-sapaldan burumakur errezo-luzakizun zegoen emakumea ere altxa, ta poliki-poliki anka-muturka joanaz pardeltxoak artu omen zuan, eta elizako atean ur-bedeinkatua artzen asi zaneokoxe, Don Migelek atzekaldetik beazmuturrez sorbaldan joaz ala esan omen zion:

—Zu altziñan nere konfesonarioko axeria...?

—Fama ori degu izalदारrok... (Bera Idiazabalda-rra zan-da)

—Lotsa ederra artu det zure narraskeriagatik...

—Jauna; jauna... konfesonarioko kontuakin ixilik!

4.2

"Este segundo hecho sucedió en mi juventud, siendo obispo de la diócesis Mateo Mújica, y yo conocí la curiosa conducta de una mujer"

Aunque no hacía ningún daño a nadie, dicen que en el pueblo había una mujer entrada en años que no tenía otro vicio que mojar la garganta de vez en cuando, y un mediodía, llevando apretada bajo el brazo una bota de 2 litros cubierta con un pañuelo negro de cabeza, dicen que fue a un bar que había en aquella época al fondo de la calle.

Al salir de allí con la bota llena y al ver que toda la multitud iba calle arriba medio corriendo, mientras sonaban todas las campanas de la iglesia, la mujer se puso nerviosa y pregunto al tabernero:

—¿Qué sucede, Faustino... no habrá fuego verdad?

—¿Qué va! ¿No sabías que hoy era de venir el obispo?

—No sabía nada. Seguramente ya lo dijo el párroco pero dice las cosas entre dientes y no le entendemos la mitad de lo que dice.

—Pues estará enseguida; la gente ya va al pórtico de la iglesia a darle la bienvenida.

Ella tampoco quería ser menos que los demás, pero como tenía que esconder lo que llevaba debajo del brazo, para que no se lo vieran delante de todos en el pórtico, entró en la iglesia antes que nadie por la puerta lateral.

Aunque para entonces ya había escondido su paquete, temiendo que lo olería el que se sentara a su lado, lo escondió en el confesonario de Don Miguel que estaba medio oscuro debajo del coro; y ella tomó asiento en el escalón del pilar de al lado.

Cuando llegó el obispo, a medida que recogía los saludos todos entraron en la iglesia precedidos por él.

Primero, saludó a los feligreses y después de la breve celebración, como era costumbre del obispo visitar la parroquia, empezó a mirarlo todo.

Primero visitó el altar mayor, después los cuatro altares laterales, las capillas de la Santa Cruz y del Rosario, la piedra bautismal, la sacristía, el coro y al final, uno por uno los 4 confesonarios que estaban debajo del coro.

El cura Don Miguel, que iba como guía abriendo las puertas de los confesonarios, le iba señalando dónde escuchaban cada cuál las confesiones.

—Aquí suele estar Don José; en este 2º el señor vicario; y en este 3º suelo estar yo.

El obispo, después de estar agachado durante un rato, al ver la punta que sobresalía de un paquete con 4 extremos, dijo sonriendo a su guía:

—¿Esto que tienes aquí, qué? ¿Lo utilizas para invitar a los que te vienen?

El cura todo avergonzado se puso más rojo que un pimiento con aquel acontecimiento, pero enseguida sospechó de quién se podría tratar.

Al terminar la celebración se puso al acecho en un lugar desde donde podía ver su confesonario, con la curiosidad de ver quién recogía el paquete.

Cuando salieron todos de la iglesia, la mujer que cabizbaja hacía largos rezos se en el escalón del pilar también se levantó y despacio despacio yendo de puntillas cogió el paquete y cuando empezó a coger agua bendita en la puerta de la iglesia, Don Miguel tocándola por detrás de la espalda con la punta de los dedos le dijo así:

—¿Eras tú la zorra de mi confesonario?

—Los de Idiazabal tenemos esa fama (Porque ella era de Idiazabal).

—¿Qué vergüenza he pasado por tu desaliño?.

—¡Hay señor, señor... con las cosas del confesonario, secreto!.